

Martxoaren 3ko 22/1992 FORU DEKRETUA, zerga paradisutzat hartzen diren herri eta herrialdeak zehazten dituena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua.....	2
2. artikulua.....	4
BUKAERAKO XEDAPENA.....	4
ALDAKETAK.....	5

Gipuzkoako zerga araudiak zenbait xedapenetan zerga paradisutzat hartutako herri edo herrialdeen aipamena egiten du, horiek zehazteko dagokion erregelamenduzko araura joz.

Beraz, beharrezkoa da zerga paradisu izaera ematen zaien herri edo herrialdeen zerrenda finkatzea.

Hori dela eta, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak deliberatu ondoren gaurko bilkuran,

XEDATZEN DUT

1. artikulua.¹

Gipuzkoako zerga araudian xedatutakoaren arabera, zerga paradisu izaera izango dute ondoren zerrendatzen diren herri eta herrialdeek:

1. Andorrako Printzerria.
2. Antilla Neerlandarrak.
3. Aruba.
4. Bahrein Estatuko Emirrerria.
5. Bruneiko Sultanerria.
6. Chipreko Errepublikak.
7. Arabiar Emirrerri Batuak.
8. Gibraltar.
9. Hong-Kong.
10. Anguilla.
11. Antigua eta Barbuda.
12. Bahamak.
13. Barbados.
14. Bermuda.

¹ Artikulu hau artikulu bakarra izatetik 1. artikulua izatera pasatu da azaroaren 4ko 96/2003 FORU DEKRETUAren artikulu bakarraren lehenengo apartatuak egindako aldatetaren ondorioz. Aldaketa 96/2003 FORU DEKRETUA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (GAO 2003-11-11) eta 2003ko otsailaren 2tik aurrera ditu ondorioak.

15. Cayman Irlak.
16. Cook Irlak.
17. Dominikako Errepublika.
18. Granada.
19. Fiji.
20. Guernesey eta Jerseyko Irlak (Kanaleko Irlak).
21. Jamaika.
22. Maltako Errepublika.
23. Malbina Irlak.
24. Man Irlak.
25. Mariana Irlak.
26. Maurizio Irlak.
27. Montserrat.
28. Naurúko Errepublika.
29. Salomon Irlak.
30. San Bizente eta Grenadinak.
31. Santa Luzia.
32. Trinidad eta Tobagoko Errepublika.
33. Turks eta Caicos Irlak.
34. Vanuatuko Errepublika.
35. Britaniako Irla Birjinak.
36. Amerikako Estatu Batuetako Irla Birjinak.
37. Jordaniako Hachemita Erresuma.
38. Libanoko Errepublika.
39. Liberiako Errepublika.
40. Liechtensteineko Printzerria.

41. Luxenburgoko Dukerri Handia, ezarpen bikoitzari itzuri egiteko 1986ko ekainaren 3ko Hitzarmenari erantsitako Protokoloko 1. lerroaldiak aipatzen dituen Sozietateek jasotako errentei dagokienean.

42. Makao.

43. Manakako Printzerria.

44. Omaneko Sultanerria.

45. Panamako Errepublika.

46. San Marinoko Errepublika.

47. Seychellesko Errepublika.

48. Singapurreko Errepublika.

2. artikulua.²

1. artikuluan aipatutako herri eta paradisuak, baldin eta Espainiarekin zerga alorreko informazioa trukatzeko ituna edo ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat informazio trukaketarako klausula txertatuta sinatzen badute, ez dira hartuko zerga paradisutzat, hitzarmen edo itun horiek indarrean jartzen direnetik aurrera.

BUKAERAKO XEDAPENA

Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin egun berean sartuko da indarrean.

² Artikulu hau azaroaren 4ko 96/2003 FORU DEKRETUAren artikulua bakarraren bigarren apartatuak gehitu du. Aldaketa 96/2003 FORU DEKRETUA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (GAO 2003-11-11) eta 2003ko otsailaren 2tik aurrera ditu ondorioak

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Azaroaren 4ko 96/2003 FORU DEKRETUA, Zerga paradisutzat hartzen diren herri eta herrialdeak zehazten dituen martxoaren 3ko 22/1992 Foru Dekretua aldatzekoa (GAO 11-11-2003).*
 - Artikulu bakarraren lehenengo apartatuak artikulu bakarra lehenengo artikulu bihurtzen du.
 - Artikulu bakarraren bigarren apartatuak 2. artikulua gehitzen du.